

SARRERA

Gaur egun, haur askok jostailuak botatzen dituzte, oraindik egoera onean daudenean. Horrek plastiko asko sortzen du, eta horren ondorioz kutsadura handia sortzen da. Horregatik sortu dugu Berrizjolastu.

Berrizjolasturen ideia, jostailuei bigarren bizitza bat ematea da. Jendeak erabiltzen ez dituen jostailuak Juguettos dendetan utzi ditzake, eta trukean puntuak edo sariak jasoko ditu. Guk jostailu horiek garbitu, konpondu eta berrerabili egiten ditugu, beste haur batzuek berriro erabili ahal izateko. Gero, gure dendan edo Juguettos dendan berriro salduko ditugu.

Berrizjolastu ez da jostailu denda arrunta, baizik eta ingurumena eta familiak laguntzen eta zaintzen dituen proiektua.

